

# GEHIEGIZKO BABESA

## Seme-alabak neurritz kanpo babestu nahi izateak ondorio kaltegarriak ditu

📁 HEZKUNTZA / GAUR8

**E**ntrenamendura-ko motxila pres-tatu nerabe bati, ikaskide batekin dituen gatazkak berak konpondu ditzan eragotzi hasieratik tar-tean sartuz, etxeko lanak egi-ten gehiegi lagundu zalantzak bere kabuz argitzen utzi gabe... David McCullough irakasleak "Zu ez zara berezia" liburuan duela hamarkada bat baino gehiago gurasoen "elurra ken-tzeko makinaren sindromea" bezala izendatu zuen jokabi-dearen adibideak dira.

Seme-alaben frustrazioak hainbesteraino saihesten saia-tzen diren gurasoei egiten die erreferentzia, bidea gehiegi errazten baitiete, eta horrek ondorioak ditu. «Ezinbestekoa da saiakuntza eta errore bidez ikastea. Ezin dugu haur bat modu osasuntsuan hezi huts egiten utzi gabe, askotan gura-soentzat haurrarentzat baino mingarriagoak diren erronka, zailtasun edo egoerei aurre egiten utzi gabe», azaldu du Enric Soler Universidad Ober-ta de Catalunya-ko (UOC) Psi-kologia eta Hezkuntza Zien-tzien irakasleak. «Gehiegi babestea mugatzearen balioki-dea da. Gehiegi babesten du-ten gurasoak mugatutako haurren fabrikak dira», dio.

Sylvie Perez psikopedago-goarentzat ere seme-alabak gehiegi babesten dituzten gu-rasoei, asko maite dituzten arren, kontrolatzaileegi joka-tzen dute. «Funtsean, etenga-beko kontrolaren beharra da-go. Baita eskolan edo lagunekin ere. Zerbait gaizki badoa, irakaslea aldatu behar da. Etxeko lanak egitea lortzen ez badu, etxeko lanak gaizki aginduta daude. Eta kirol par-tida batean nahi dugun guztia jokatzan ez badu, entrenatzai-

leak ez du balio», adierazi du UOCeko Psikologia eta Hez-kuntza Zientzien irakasleak.

Adituek hainbat azalpen aurkitu dituzte gurasotasun mota hori gaur egun ohikoa-goia izan dadin. Baina nagusia gaur egun ugaritzen ari den «antsietatea» dela dio Sole-rrek, «gure gizartean nahas-mendu orokorra bihurtu dena». Gaineratu duenez, gu-rasoei sufrimendutzat jotzen duten ikaskuntza antsietaterik gabe ikustea lortzen badute, agian hobeto jasan ditzakete iturri desberdinetatik datozen beste antsietate-foku batzuk, hala nola lana, egunerokota-sunaren instrumentalizazioa seme-alabak dituzunean, in-teres-tasen igoera edota alda-tzeko aukera handirik ez duen kanpoko beste edozein ele-mentu. «Errazagoa da haurra gehiegi babestea helduen be-rezko erronkei aurre egitea baino», gaineratu du.

Gainera, Sylvie Perezen iri-tziz, gaur egun beldur gehiago daude gehiegizko babesera ga-ramatzatenak. «Egungo gizar-tea ziurgabeagotzat hartu ohi dugu. Eta garai bateko tribu-edo herri-kontu hura, denok denak pixka bat zaintzen geni-tuenekoa eta kalera jaistea arriskutsua ez zenekoa, aurre-ko bizilagunak edo dendariak ere begi bat botatzen zuelako,

jada ez da gertatzen hirietan», deskribatu du.

Azkenik, antsietateaz eta beldurrez gain, guraso askok denbora falta ere badute. «Gu-raso batzuk hain estresatuta gaudenez eta hain azkar bizi garenez, batzuetan gauzak egi-

ten dizkiegu gure seme-alabei denbora irabazteko. Arazoak konpontzen dizkiegu, ez bai-tugu denborarik haiei gaizki egiten utzi eta ondoren nola egin irakasteko», dio adituak.

### SEME-ALABENTZAT ONDORIOAK

Asmo onak izan arren, seme-alabei zailtasun- edo frustra-zio-egoera oro saihestea haien garapena geldiaraztea da. «Umetu egiten ditu eta oso modu larrian mugatzen du haien garapena, edozein alder-ditan. Frustrazioa bezalako emozio desatseginen kudea-ketan, sormenean edo arazoak konpontzeko gaitasunean. Munduko asmo on guztiare-kin, beren etsairik handiena bihurtzen gara eta bere gara-



pena geldiarazten dugu», azaldu du Enric Solerrek.

Zehazki, eragin negatiboetako bat beldurren herentzia izan daiteke. Sylvie Perezek azaltzen duenez, ingurune oro mehatxagarritzat hartzen denez, norberaren beldurrak seme-alabei transmititzeko joera dago. «Zerbaiten beldur banaiz eta horri buruz mehatxu gisa hitz egiten badut, nire seme-alabek ere mehatxu moduan ikusiko dute, nahiz eta berez hori bera neutroa izan litekeen haientzat. Adibidez, etxetik kanpo lo egitea. Gurasoei beldurra ematen badie eta hala adierazten badute, haurrak kanpamentura edo lagun baten etxera joateko beldurra izango du ziurrenik».



Gurasoak munduko asmo onenarekin saiatzen dira seme-alabei laguntzen, baina gehiegizko babesak ondorio kaltegarriak izan ditzake haien garapenean.  
GETTY IMAGES

"Elurra kentzeko makina" izatearen beste ondorio bat seme-alaben ziurtasun eza areagotzea da. «Inkontzienteki bada ere, erakutsi diete beraiek bakarrik ezin dituztela gauzak egin, norbait behar dutela beti. Erabakiak hartzea kosta egiten zaien haur, gazte eta helduak izango dira, eta beste haur lide-ragoekin joateko joera izango dute», dio psikopedagogoak.

Era berean, zailagoa izango zaie arazoei aurre egitea; izan ere, mendekotasuna dutenez, beste batek lagundu behar die arazoak konpontzen. «Onena litzateke guk lehenik arazo bat konpontzea, baina gero, hazten direnean, haiek arazo hori nola konpondu dezaketen irakastea. Eta handiagoak egin ahala, zailtasunak nola konpondu pentsatzen irakatsi beharko genieke», adierazi du.

Frustrazioari aurre egiteko ezintasuna da beste arrisku bat; frustrazio hori, adituen iritziz, noizean behin onuragarria da ikasi ahal izateko. «Haurrek frustratzeko eskubidea dute», dio Perezek. «Etengabe gauzak egitea eta gaizki ateratzea saihesten badugu, ez dira autonomoak izango. Huts egin, frustrazioa sentitu eta hortik ikasteko eskubidea dute», gogorarazi du UOCeko irakasleak, eta gaineratu du, gizarteak huts ez egitera eta emaitzetara bideratzen dituen arren, egokiena ez dela emaitzetan zentratzea,

prozesuan baizik. «Prozesuak baloratzen ez ditugunez, ez diegu huts egiten uzten. Baina horretarako eskubidea dute, ikasteko modu bat da».

Baina seme-alabek bakarrik ez, gurasoek ere pairatzen dituzte gehiegizko babes horren ondorioak. Solerrek azaltzen duenez, «'Esto no es Suecia' teslailean oso ondo ilustratutako aitatasun perfektuaren mitoa muturrera eramaten bada, antsietate jasanezina sortzeaz gain, guraso batzuk beren bikote-harremana elikatzeaz ahazten dira».

UOCeko irakasleak dioenez, guraso gutxi jabetzen dira bi harreman dituztela aldi berean: bikote-harremana eta gurasotasuna, beren buruarekiko harremanaz gain, gizaki indibidual gisa. Familiako kide berri bat agertzean, egokitzen penak egin behar dira, baina inoiz ez lehendik zeuden harremanak arriskuan jarri. «Arriskurik ohikoena da gurasotasunaren alde egin eta bikote-harremana ahaztea, heldu bakoitzak bere semearekin edo alabarekin duen harremanean arreta guztia jarritz. Harreman-sare horrek oreka harmonikoan egon behar du».

**NOLA JOKATU**

Nahiz eta seme-alabak gehiegi babesteko joera handia egon, aholku batzuek aurre egiten lagun dezakete. Adituen ara-

bera, gehiegizko permisibitatearen eta gehiegizko kontrolaren muturrak saihestu behar dira, oreka bilatuz.

Autonomia sustatzea garrantzitsua da. Haurrak denboraren kudeaketaren kontzientzia izan dezan sustatzea, lanen entregak edo azterketen datak gogoratuz, onuragarria izan daiteke. Hala ere, bizitza osoan zehar egiteak «guraso izateari uztea dakar, eta seme-alaben idazkari pertsonala bihurtzeko. Horrela, ez du inoiz bere burua bere kabuz kudeatzen ikasiko», gogoratu du UOCeko irakasleak.

Arazoak kudeatzen irakastea ere bai. Adituen arabera, zilegi da norberaren beldurrak hitzez adieraztea, betiere horiei aurre egiteko moduak azalduz. «Ezin dut soilik beldurra helarazi; beldurra ematen didanaren kudeaketa da helaraz deza-kedana. Gauak beldurra ematen badit, zilegi da esatea, baina aurre egiteko egin daitekeenaz lagunduta: argi bat piztu, musika jarri, norbait ondoan dagoela jabetu...».

Eta guraso gisa atsedenera ko denbora hartu. Askotan, gurasook nekatuta egoten dira, gehiegizko babesak higadura eragiten baitu dena kontrolatzen saiatzean. Horregatik, beste aholku bat da gehiegizko babes horretatik atsedean hartzen saiatzea eta zer gertatzen den ikustea. «Ezin badut kontrolatu nire semea etxera bakarrik itzultzeko dudana beldurra, aukera bat da bakarrik joaten uztea eta izkinan gertatzea. Kontua da gure seme-alabak aurrera ateratzen direla egiaztatzea, eta, hala egiten ez badute, zertan huts egin duten ikustea eta laguntzen saiatzea. Hegan egiten irakasteko, hegoak eman behar zaizkie», amaitu du Sylvie Perezek.

**«Gehiegi babestea mugatzearen baliokidea da. Gehiegi babesten duten gurasoak mugatutako haurren fabrikak dira», dio Enric Soler UOCeko Psikologia eta Hezkuntza irakasleak**

**Sylvie Perez psikopedagogoak azaltzen duenez, gurasoek ingurune oro mehatxagarritzat hartzen badute, norberaren beldurrak seme-alabei transmititzeko arriskua dago**